



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2020ko UZTAILAREN 28an EGINIKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2020ko uztailaren 28an, arratsaldeko 20.00etan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon AYERZA SARASUA (Asteasu Batuz, AB)
Larraitz ALKORTA AIZPURUA (Asteasu Batuz, AB)
Joseba TXAPARTEGI NIEVE (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar ITURBE URDANGARIN (Asteasu Batuz, AB)
Unai OTEGUI IRAZUSTA (Asteasu Batuz, AB)
Joseba GOMEZ SARASUA (EAJ/PNV)
Luke URIBE-ETXEBARRIA APALATEGUI (EAJ/PNV)

Ezin dela etorri aurretik adierazi du: Aitor USANDIZAGA IZAGIRRE (Asteasu Batuz, AB)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERRENDA:

- 1. OH 2020/002: Goiz Eder etxean portxea eta igerilekua egiteko baimena ematea.**
- 2. Maiatzaren 22ko 2020/100 Alkatetza Dekretua baliozkotzea**
- 3. Erregu eta galderak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

OH 2020/002: Goiz Eder etxean portxea eta igerilekua egiteko baimena ematea

- Espediente zenbakia: OH 2020-002
- Eskaera-data: 2020/06/24
- Sarrera zenbakia: 401
- Zuzenketa: 2020/06/29
- Eskatzailea: **XXXXXXXXXXXXXXXXXX** jauna
- Obra baimen eskaera: Asteasuko Goiz Eder etxean kanpo-portxea eta pistina egitea, Jose Ramon García Murga jaunak eta Javier Santos Solis jaunak 2020ko ekainean egindako exekuzio proiektuaren arabera (GAATEOK 2020/06/23an sinatua), eta dokumentazio gehigarria (GAATEOK 2020/06/26an sinatua).
- Obren egikaritze materialaren aurrekontua: 20.127,79€
- Udaleko Arkitekto aholkulariaren txostena: 2020/07/1 Aldekoa
- Udaleko Bitarteko Idazkari Kontu hartzailearen txosten-proposamena: 2020/07/2
- Expediente: OH 2020-002
- Fecha solicitud: 24/06/2020
- Nº entrada: 401
- Subsanción: 29/06/2020.
- Solicitante: D. **XXXXXXXXXXXXXXXXXX**.
- Solicitud de licencia de obra: ejecución de porche exterior y piscina en casa Goiz Eder de Asteasu, según Proyecto de ejecución formulado por D. Jose Ramón García Murga y D. Javier Santos Solis en junio de 2020 (visado por el COOAATG el 23/06/2020), y documentación complementaria (visado por el COOAATG el 26/06/2020).
- Presupuesto ejecución material de las obras: 20.127,79€
- Informe Arquitecto asesor Municipal: 1/07/2020 Favorable
- Informe-propuesta del Secretario Interventor Interino: 2/07/2020

Asteasuko Plangintza Arau Subsidiarioetan jasotakoarekin bat.

A la vista de lo establecido en el artículo 113 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Asteasu.

Hirigintza eta Obretako Informazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Previo dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo y Obras.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

La propuesta se somete a votación con el siguiente resultado:



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Gómez, Uribe-Etxebarria)	Votos a favor: 8 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez, Uribe-Etxebarria)
Kontrako botuak: 0	Votos en contra: 0
Abstentzioak: 0	Abstenciones: 0

Gauzak horrela, Udalbatzak,

Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento,

ERABAKI DU

HA ACORDADO

LEHENA.- Eskatutako obra baimentzea, beti ere aurkeztutako agiriak betetzekotan.

PRIMERO.- Autorizar la obra solicitada, en base a la documentación presentada.

BIGARREN PUNTUA

Maiatzaren 22ko 2020/100 Alkatetza Dekretua baliozkotzea

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako 03/2020 Foru Dekretu Arauaren bigarren artikulua honela dio:

1. Toki-erakundeetan, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak tokiko korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko dira, eta ez zaizkie aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak.
2. Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da eta, ondoren, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.
3. Osoko Bilkurak ez baliozkotzeak ez du onartutako dekretu edo ebazpenaren deuseztapen edo etete-ondoriorik izango.

Maiatzaren 22ko 2020/100 Alkatetza Dekretuk honela dio:

“Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 3-2020 zenbakiduna,

Ikusita Idazkari kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita 3/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 12koa, 2.1. artikulua. Kreditu gehigarriak onartzeko aparteko araubidean oinarrituz, Toki-erakundeetan, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak toki korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko direla.

Arestian aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntza
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	12.000,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	36.536,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		48.536,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	6.536,00
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	42.000,00
GUZTIRA		48.536,00



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Bigarrena.- *Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran”.*

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Beraz, eta espedientean jasota dauden dokumentuak ikusirik, Udaltzarak

ERABAKI DU

Lehenengoa. Maiatzaren 22ko 2020/100 Alkatetza Dekretua baliozkotzea.

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du. 2020 urteko funts-foralaren egoera zein den ikusirik, eskatu du irailean zehar ogasuneko batzordea egin dadila udaleko aurrekontuaren murrizketa aztertu ahal izateko, ikuspegi orokor bat izateko, eta 2020 urteko behin betiko programazioa egin ahal izateko udaleko aurrekontuari dagokionez. Gainera, kontuan hartu beharko dira legedian egon daitezkeen aldaketak aurrekontuaren zorpetze maila eta diruzaintza gerakinaren inguruan, izan ere, une honetan gai hori Madrilan eztabaidatzen ari da. Argi utzi nahi du ez dagoela ados alkatetzak eginiko proposamenarekin, hau da, 4. Kapituluaren murrizketa egitekoa. Azkenik, eskatu du aurrekontuaren exekuzio mailaren informazioa jasotzea irailaren batzorde hori egin aurretik.

Alkate andreak hitza hartu du. Maiatzaren hasieran egindako ogasuneko informazio batzordean aurrekontuaren murrizketa proposamenaren zirriborroa aurreratu zuen, eta hor bertan aurrekontuaren ikuspegi orokorra jasota dago; aipatu zirriborroa xede horrekin aurkeztu zen, hortik aurrera egin behar den eztabaida eta erabakiak hartu ahal izateko. Ziur aski irailaren lehenengo asterako Udalak ez du legedi berriaren informazioa izango, baina bai uste du aipatu hilean batzordea egin ahal izango dela, beharrezkoak diren eztabaidak eta erabakiak hartu ahal izateko. Dena den, nahiko argi dago udaleko sarreretan (funts forala eta udaleko sarrera tasa eta prezio publikoetan) murrizketa izango dela, hortaz, gastuetan ere murrizketa egin behar dela; udala ez dago behartuta diru-laguntzak emateko, hortaz, kapitulu horretan eragina izan beharko du, bestek beste.

HIRUGARREN PUNTUA

Erregu eta galderak

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du. Udalekuen egoerari buruz, adierazi du inork ez ziola deitu EAJ Udal Taldeari gai horri buruz hartu beharreko erabakiak hartzeko; erabaki horiek aurreko larunbat batean hartu ziren, eta ezin izan zuten horretan parte hartu.

Alkate andreak hitza hartu du. Esandakoa egia dela erantzun du, eta errekonozitu du ez zela horretaz konturatu; hori dela eta, barkamena eskatu du. Esan du Eudeletik presazko eskaera larunbat horretan jaso zuela, eta hiru zinegotzi bakarrik aukera izan zutela gaia aztertzeko. Astelehen bertan bertan behera uzteko erabakia hartu behar zenez, ez zen beste aukerarik ikusi.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:29 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2020ko uztailaren 28an.

Alkate andrea

Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea